



mundukide

kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

2023 Txostena



www.mundukide.org



Iñigo Albizuri Landazabal

Mundukide Fundazioko lehendakaria

Duela 25 urte, zenbait kooperatiba eta garapenrako gobernuz kanpoko erakunde talde batek Mundukide sortu genuen. Gure ingurune ekonomiko-soziala aldatu egin zen, eta munduko gizarte aberatsen artean kokatu gintuen. Pentsatu genuen urte haietan kooperatibek mundura izandako irekierak, ez zuela gure bizi-baldintzak hobetzeko bakarrik balio behar, beste herri eta komunitate batzuenak ere hobetzeko baizik; eta guretzat funtzionatu zuenak (lanak eta kooperagintzak) beste pertsona batzuentzat ere balio zezakeela.


Izan ere, kolektibo orok behar ditu baliabideak elikadura, etxebizitza edo hezkuntza lortzeko. Eta horretarako hiru bide baino ez daude: eskatzea, lapurtzea edo sortzea. Eskean, beti egongo da menpean, eta lapurretan, beti ihesean. Epe luzerako bide bakarra sortzea da. Lankidetzak emankorra izan zedin, bi gauza behar ziren: Lehenik eta behin, bizi-baldintzak hobetu nahi dituzten kolektiboen lidergoa. Eta bigarrenik, gure elkartzuna puntuala eta noizbehinkakoa izan gabe, egiturazkoa eta jarraitua izatea.

Eta 25 urte geroago horretan gaude. Besteak beste, Mozambiketik, Etiopiako eta Ekuadorreko nekazariekin, Kolonbiako birziklatzaileekin eta Brasilgo MSTrekin lankidetzan, bizitza duina izateko behar diren baliabideak lortzeko lan egiten duten emakume eta gizonekin batera. Elkartzuna eta erantzukizuna. Aukera eta merkatu berriak bilatzea. Indarrak batu eta erronkei elkarrekin aurre egin. Antolatzea. Teknika berriak ikasi eta erabiltzea. Aurreztu eta berrinbertitu. Gutxi batzuentzat ezik pertsona askorentzat baliabideak sortu. Gizon eta emakumeentzat. Kudeaketa eraginkorra sustatu. Horretan laguntzen saiatzen gara.

2023. urteko txosten honetan aurkituko dituzue horren guztiaren adibideak.

Txostena urte hauetan zehar hain gurea den egiteko modu honetan lagundu duzuen pertsona eta erakunde guztiei eskaini nahi dizuegu.

Eskerrik asko guztioi.



Lehendakariaren gutuna	2
Misioa eta balioak	4
Mundukide gara	5
Hego Amerika	6
Kudeaketa-eredu propioa eratzea	8
Kooperatibagintza Cearan	9
Ofiziozko birziklatzaileak	10
Nekazaritza osasungarria	11
Afrika	12
Helburua: diru-sarrerak handitzea	14
Aldaketa: arnasa luzeko lana	15
Kooperanteak	16
Sentsibilizazioa	18
Datu ekonomikoak	20

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Iturriotz 27- 1º 20500 Arrasate-Mondragón • Tel. 943 772010
mundukide@mundukide.org • www.mundukide.org





Misioa eta bafioak



Hegoaldeko herriein lankidetzan jardutea, esperientziak, baliabideak eta jakintza partekatuz, inplikaturako aldean garapen autokudeatua eta integrala sustatzeko, eta, horretarako, lan mundu kooperatiboaren elkartasuna aktibatzea da gure misioa, Mundukideren balio eta printzipioetan oinarrituz eta haien gidaritzapean.

bafioak

ELKARTASUN UNIBERTSALA

Mundukiden parte hartzen dugunon lanak elkartasuna du oinarri, bai ekonomia solidarioan garatutako beste esperientzia batzuekiko eta baita demokrazia sozialaren alde dihardutenekiko ere, betiere bake, justizia eta garapen helburuak partekatuz.

LANA

Lana ekintza eraldatzaile gisa hartzen dugu, aldatetarako ekintza bezala, garapena lortzeko bide moduan. Mundukiden uste dugu lana bera ere balioa dela, eta kapitalaren gainetik dagoela.

GIZARTE ERALDAKETA

Mundukidekook pertsonak eta jendartea bi-dezkoagoak izatea nahi dugu, eta horretarako, norbere buruaren kudeaketa maila handiagoa izatea nahi dugu arlo guztietan, genero harremanak barne; ikuspuntu horretatik, autonomia funtsezkoa da, pertsona, elkarte eta herri bakoitzak erabaki dezan nolako jendartea izan nahi duen.

Mundukide gara

Enpresa eta kooperatiba laguntzaileak



Erakunde laguntzaileak



Mundukide erakunde hauetako kidea da 2023 urte bukaeran:





Hego Amerika

Kontraparte egituratuen lana indartzen laguntzen dugu, enpresa arloan, antolamendu arloan eta kooperatiba arloan, tokiko lidergoarekin eta Brasil, Kolonbia eta Ekuadorko herrietan gizartea eraldatzeko bokazioarekin.



KOOPERATIBEI
AHOLKULARITZA



ENPERSA SOZIAL
BERRIAK BULTZATZEA



PERTSONEN
TREBAKUNTZA



MERKATURATZEA

Emaitza nabarmenak:

- **22 kooperatiba, 28 denda eta 11 elkarterekin** (4.500 bazkide eta 230 langile) aritu gara lankidetzan.
- **400 pertsonak baino gehiagok** hartu dute parte Ekintzailatza Soziala, Enpresa Sozialen Kudeaketa, Kooperatibagintza, Finantza Kudeaketa eta Giza Harremani buruzko prestakuntzetan.
- Ceara estatuan MSTko kooperatiba berriek **123.000 €-ko diru-sarrerak** sortu dituzte soldaterako, **eta 860.000 €-ko salmentak** bazkideak diren nekazariarentzat.
- MSTren “Armazens do Campo” supermerkatu-sareak 4 supermerkatu berri ireki ditu eta guztira **28 denda eta 167 langile izanik**. MSTko kooperatiben **produktuen salmenta 660.000 €-koa** izan da.
- Kolonbian, nekazari indigenek **46.000 €-ko balioa duten** produktu agroekologikoen salmentak lortu dituzte, eta Pasto hiriko birziklatzaileek **16.000 €-ko diru-sarrerak** izan dituzte tarifa kobratzeagatik.



Brasil

Mundukidek Brasilen duen programaren helburua giza-talde zaugarrien egoera sozioekonomikoa indartzea da, praktika kooperatiboak hobetuz, ekoizpenaren kudeaketatik hasi eta merkaturatzeraino. Gaur egun, hiru lan ildo nagusitan egituratzen da programa: Hegoaldeko eskualdean dauden kooperatibak indartzea, MSTrekin lankidetzan, ekoizpen, merkataritza, enpresa eta antolaketa gaitasunak hobetuz. Ceara estatuan 5 nekazal-kooperatiba sortzea. Supermerkatu eta banaketa zentruen sarea indartuaz zirkuitu laburreko kanala osatzea, MSTko komunitatentzat lanpostu berria sortuz.

Kolombia

Kolombiako programak bi ildo nagusi lantzen ditu. Lehenengo ildoak birziklatzaileen erakundeak indartzean datza, ofizioko birziklatzaileen errentak hobetzea helburu. Horretarako, Kolombiako hego-mendebaldeko birziklatzaileen elkarteei laguntza eta prestakuntza ematen zaie. Bigarren lan ildoak Pasto emakume nekazari indigenen familia ekonomia indartzean oinarritzen da. Laguntza horren barruan sartzen da nekazaritza ekologikorako teknologia sartzea eta hurbileko merkaturatze bideak sustatzea. Nariño departamenduko sei lurralde indigenetan egiten da ahalegin hori. Gainera, Gran Tescual-eko Kabildo Indigenari laguntza ematen ari zaio indigenen ekoizpen ekintzailetzak garatzeko.

Ekuador

Mundukidek Ekuadorren duen programaren helburua garapen sozioekonomiko jasangarria bultzatzea eta Iparraldeko mugan eta Amazonian landa erakundeen elkartegintza indartzea da. Gaur egun, programak bi ekintza ildo ditu ardatz. Ildo nagusiak, Toisan Korporazioarekin lankidetzan, 10 ekintzailetza indartu ditu Intag Bailaran (Cotacachi); ekintzaile gehienak emakumeak dira, eta ekoizpen, merkataritza, enpresa eta antolaketa gaitasunak hobetu dituzte. "Kutakachi" merkaturatze sare bateratua sortu da, salmentak handitzeko eta kanpoko merkatuetan sartzeko. Bigarren ekintza-ildoak amazoniako nekazari txikien Wiñak izeneko elkarteari aholku ematean datza, haien gobernagarritasuna eta plangintza sendotuz.



Kudeaketa-eredu propio baten heldutasuna



2007an Brasil programa hasi zenetik, ikusi zen Euskal Herriko kooperatiben kudeaketa ereduak interesgarriak izan zitezkeela Brasilgo kooperatibetan kudeaketa hobetzeko. Jakina, ez zuzenean erabiltzeko, baizik eta osagarri gisa edo MSTko kooperatibagintzan ezarritako praktikekin batera erabiltzeko. 2018an, Gizarte Enpresen Kudeaketa Ereduaren lehen proposamena sortu zen, MSTko erakunde sozialek merkatu kapitalistan dauzkaten beharrei erantzuteko diseinatua, pertsonengan eta komunitateengan oinarritutako ikuspegi batekin. Eredu horrek balio eta printzipio kooperatiboak barne hartzen ditu, erakundeei garapen inklusibo eta ekitatiborako bidea emanez. Eredua Brasilgo programaren lankidetzaren oinarri bihurtu da, eta diagnostikorako, plangintzarako eta segimendurako tresnak garatu dira, askotariko erakundeetan aplikatzeko. Ereduaren ezagutzan sakontzeko, eredu MSTren ekoizpen sektoreko zenbait ikastetxeren jarraibide pedagogikoetan txertatu da eredu bera.

Mundukidek eta MSTk sektore horretan egindako prestakuntza oro eredu horrek gidatzen du. Azken bost urteetan, 1.400 pertsona baino gehiagok –600 emakume barne– ereduaren eta haren tresnen erabilerari buruzko prestakuntza jaso dute. Hogeita hiru kooperatiba bereziki, 3.600 familia elkarturekin, eta bigarren mailako hiru kooperatibak, 30 kooperatiba elkarturekin, Gizarte Enpresen Kudeaketa Eredua txertatu dute eguneroko eragiketetan. 30 denda, 170 langile eta 2,8 milioi euroko salmentak dituen Armazen do Campo sareak, bere negozio-eredua kudeaketa eredu propioan oinarritzen du.

Cooperatibagintza Ceara estatuan



Hasieratik, MSTk kooperatibak sortzearen alde egin du, landa-langileak ahalduzko eta nekazaritza-garapen bidezkoagoa eta jasangarriagoa sustatzeko bide gisa. Bultzada kooperatibista horrek harrera eta hazkunde handiagoa aurkitu du herrialdearen hegoaldeko eskualdeetan kooperatiba aktiboen ia %60 bertan kokatzen direlarik. Testuinguru honetan, MSTrentzat estrategikoa da eredu kooperatibista hau Brasil iparraldean zabaldu eta sendotzea, non baldintza sozioekonomikoak eta erronkak desberdinak diren, baina era berean premiazoak.

2017an, Munduko Bankuaren eta Ceararen Gobernu Estatalaren babesarekin, MSTk proiektu bat hasi zuen Mundukiderek lankidetzan, MSTren zenbait asentamendu eta kanpalekuren ekoizpena antolatzeko, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena prozesatzeko nekazaritza-industriako 5 kooperatiba ezarriz. Bost urtez, komunitateak trebatu dira kudeaketa eta gobernantza kooperatiboan, eta teknikari espezializatuak prestatu dira administrazio kooperatiboan, nekazaritza-industrien funtzionamendu eraginkorrean eta merkaturatze-prozesuetan. 2002an eta 2023an, nekazaritzako bost kooperatiba industrialak martxan jarri dira, eta 2023an 1,2 milioi euroko fakturazioa lortu dute.

Gainera, estatu mailako interkooperazio-mekanismoak ezarri dira ekoizpen-, merkaturatze- eta prestakuntza-prozesuei laguntzeko, eta kontabilitate- eta lege-gaietan aholkularitza espezializatua eskaintzeko, ingurune operatibo egonkorra eta indarrean dagoen araudiaren araberakoa ziurtatuz.

Cearan sortutako ingurune kooperatiboak, asentatuen ekoizpena eta diru-sarrerak hobetzeaz gain -750.000 € bazkide diren 541 pertsonen nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena erosteagatik, eta 100.000 € gehiago 65 langileei soldatetan-, epe luzerako autogestio- eta jasangarritasun-gaitasuna ere indartu du. Eredu horrek emaitza ekonomikoak biltzeaz gain, landa-garapen bidezkoago eta erresilienteago baterako oinarriak ere ezartzen ditu, kooperatibismoaren printzipioetan eta balioetan oinarrituta.





Kolonbiako hego-mendebaldeko birziklatzaileen erakundeak



Historikoki, Kolonbiako ofizioko birziklatzaileek diskriminazioari eta bazterkeriari egin diote aurre, hondakinen kudeaketaren katean funtsezko kolektiboa izan arren. Auzitegi Konstituzionalaren 2009ko epai batek mugarri bat ezarri zuen, emakume birziklatzaileen lana eta garbiketa zerbitzu publikoan parte hartzeko duten eskubidea aitortuta. Azken helburua da birziklatzaileek, parte hartze horren bidez, beren bizitza hobetzen lagunduko dieten diru sarrera gehigarriak izatea.

Mundukide Fundazioa Kolonbiako Hego-mendebaldeko Ofizioko Birziklatzaileen Elkartearekin (ARSOC) lankidetzan ari da. ARSOCek oinarritzko birziklatzaileen bederatzi erakunde ditu Popayan, Cali, Ibague eta Paston. Erakunde horiek 338 birziklatzaile bazkide dituzte (%63 emakumeak), eta 5.326 birziklatzailerik ematen diete zerbitzua (%60 emakumeak).

Mundukide Fundazioaren jarduera ARSOC eta haren erakundeak indartzean oinarritzen da, kudeaketa arloko prestakuntzaren eta laguntzaren bidez; hola, emakume birziklatzaileek beren lana modu eraginkor eta jasangarrian egin ahal izatea ziurtatzen da, garbiketa prestazioa barne.

Garbiketa zerbitzuan parte hartzeko, emakume birziklatzaileen erakundeek beren ECAk (Saillkapen eta Aprobetxamendu Estazioak) erregularizatu behar dituzte. Horien bidez, erakundeek, zerbitzua ematen duten enpresa gisa, tonak erregistratzen dituzte. Zerbitzuaren tarifa edo ordainketa, ondoren, birziklatzaile bakoitzak jasotzen du, erakundearen bidez erregistratutakoaren arabera. Sistema horrek, birziklatzaileen lana formalizatzeaz gain, egiten duten lanagatik bidezko konpentsazioa jasoko dutela ere ziurtatzen du. 2023an, ARSOCeko erakundeetako 338 bazkideek, tarifaren araberrako diru sarreretan, 46 euroko igoera izan dute urtean, hau da, hilabete erdiko sarreraren baliokidea.

Nekazaritza osasungarria



Nekazaritza ekologikoa, Mundukide Fundazioak Kolonbian eta Ekuadorren egiten duen lanaren ardatza dena, nekazaritzaren garapenerako alternatiba eraginkor eta jasangarri gisa ikusten da. Ikuspegi hori egokitu eta doitu egin daiteke Kolonbiako Paston eta Ekuadorko Intag bailaran bizi diren komunitate indigenen beharretara.

Ongarri organikoa funtsezko zutabea da eredu hori ezartzeko. Tokiko hondakin organikoak eraldatzean sortzen da ongarri hori, eta lurzorua emankortasuna aberasteaz gain, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria ere sustatzen du, eta kanpoko intsumo kimikoekiko mendekotasuna murrizten du, zeinak kaltegarriak eta garestiak baitira.

Nekazaritza ekologikoan landutako elikagai osasungarriak merkaturatzea funtsezkoa da eredu horren bideragarritasun ekonomikorako, nekazaritzako produktu ekologikoak saltzen diren prezio diferentziala dela eta.

Mundukide Fundazioak, tokiko bazkideekin batera, nekazaritza ekologikoa sustatzen du, prestakuntza eta asistentzia jardueren bidez. Trebakuntza ematen da nekazaritza ekologikoko produkzio teknikan eta zuzeneko merkaturatze estrategietan, hala nola tokiko azoketan eta merkatu komunitarioetan. Ikuspegi horrek komunitateen autonomia ekonomikoa sustatzen du, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko loturak indartzen ditu eta dieta osasungarriagoa sustatzen du.

Mundukidek eta bere bazkide kolonbiarrak (Agromindalae), Pasto herriaren (56.660 pertsona) 7 babeslektutako 417 familia ekoizleri laguntzen diete (produkzio buru gisa dihardutenen %80 emakumeak dira). Ekuadorko bazkidea den Toisan korporazioak, Mundukiderekin batera, Intag bailarako 15.000 biztanleko komunitate bateko 120 ekoizleri (%90 emakumeak) laguntzen die. Bai hasierako emaitzak bai merkaturatze hazkundeak apalak izan dira orain arte: 46.396 € Kolonbian eta 12.521 € Ekuadorren.





Afrika

Mozambike eta Etiopiako pertsonen gaitasunak indartzeko ari gara lankidetzan, beren garapen sozioekonomikoari eta beren komunitateei lagundu diezaieten.



NEKAZARITZA
EKOIZPENA



UREZTATZE
SISTEMAK



PERTSONEN
TREBAKUNTZA



LAGUNTZA
TEKNIKOA



HORNIDURA ETA
MERKATURATZE SAREA

Emaitza nabarmenak:

- Guztira, **14.500 familia** nekazarik parte hartu dute Mundukideko programan.
- Parte-hartzaileek laborantza eta teknika espezifikoetan esperientzia duten **176 nekazariren laguntza** izan dute. **32 elkartetako kide dira eta 7 hilabetez 5 nekazaritza-teknika berri** aplikatzen lagundu diete.
- Parte-hartzaileek, **290 auzo-taldetan antolatuta eta tokiko 20 merkatarirekin lankidetzan**, programak eskuragarri dituen 60 tona intsumo eta tresna erosi dituzte, guztira **167.000 €-ko balioarekin**.
- Parte-hartzaileek **4.700ha lur landatu dituzte** gomendatutako teknikekin, eta **2.500 tona produktu bildu dituzte**. Uztaren salmentarekin, parte hartu duten familiek **2.155.000 €-ko irabaziak** izan dituzte.



Mozambique

Mozambique munduan Giza Garapenaren Indize txikiena duten hamar herrialdeetako bat da, eta horrek pobrezia orokorra eta sakona dakar.

Programak Niassa eta Cabo Delgado probintzietako nekazari-familiekin batera lan egiten du. Probintzia horietan, biztanlegoaren % 80 baino gehiago dira nekazariak, eta familia bakoitzak urtean 300 € baino gutxiagoko aurrekontua du. Programa eta nekazari-familiak lankidetzan aritzen dira aukera produktibo eta komertzial berriak bilatzeko, familiek aukera hobekak izan ditzaten beren bizitzak hobetzeko baliabideak eskuratzeko. Lankidetzak aukerak identifikatzetik, uzta saltzeraino, laguntza teknikotik eta insumo eta tresnetara sartzetik pasatzen da.

Urte hauetan dozenaka mila familiak hartu dute parte programan, eta pixkanaka ekosistema oso bat osatzen ari da; bertan parte hartzen dute nekazal-familiak, auzo-taldeak, elkarteak, tokiko merkatariek eta nekazaritzako erosle handiek, sendotu ahala, jardunbide berrien eta diru-sarreraren iturrien iraunkortasuna bermatzen du.

Etiopia

Tigrayko gerra bukatuta, gatazkak Amharako eskualdea harrapatu zuen, horren ondorioz, Gobernuak larrialdi egoera deklaratuta zuen. Beste krisi bat, kalte sozial eta ekonomiko larriak eragin dituena. Hala eta guztiz ere, SOS Sahel tokiko erakunde bazkidearekin, eta Oromia eskualdeko Asella hiria oinarri hartuta, alde batetik, 150 emakumerentzako mikroekintzailatzarako mikroredituen lerro batean lan egin da, eta, bestetik, sagarrondoak, ahukateak, baratze txikiak (109 nekazari) eta 60 emakumerentzako oilasko hazkuntza bultzatzeko ekimenak sustatzen jarraitu da, diru sarrerak hobetzeko helburu orokorarekin. Azken ildo horrek epe laburrean eman dizkie emaitzak emakume parte hartzaileei: 71.220 arrautza produzitu dira, eta 13.000 euroko diru sarrera izan da, gutxi gorabehera. Horrez gain, eta lurren higaduraren arazo larriari erantzuteko, programa pilotu bat landu da 20 hektareako eremu batean. Eremua mendi baten oinean dago, eta, horren ondorioz, euriteak zuzenean leku horretara bideratzen dira, higaduraren arazoa larriagotuz. Problema larri horri aurre egiteko, bertako 20 familia ahalegin komunitario batean inplikatu ziren. Elkarrekin, familia horiek 38.000 landare landatu zituzten, akazia, grevillea eta eukalipto espezieak barne. Landare horiek, lurra naturalki egokitzeko eta lurzorua sustraiekin indartzeko daukaten gaitasunari esker, higaduraren gehikuntza mugatzen eta prebenitzen laguntzen dute.





Helburua: diru-sarrerak handitzea



Programa 2018-2019 kanpainatik ari da sojarekin lanean. Oso esku hartze txikiarekin hasi zen, eta urteetan zehar, herrialdean erosle, prozesatzaile eta esportatzaile kopurua handitzen ari zela ikusita, beste barruti batzuetan sartuz joan da.

2022-2023an orain arteko parte hartzerik handiena lortu da, 3.000 nekazarik 1.750 ha landu baitituzte (2021-2022an baino 3 aldiz gehiago). Hala ere, merkaturatzea oso gorabeheratsua izan da.

Enpresa esportatzaile handienetako biren arteko botere azpijokoen eta gobernu arbitrajearen eraginkortasunik ezaren ondorioz, Indiako merkaturatzaile kasik itxi egin zen Mozambikeko sojarentzat, eta %50erainoko prezio jaitsierak izan ziren (30 MZN/kg-tik 15 MZN/kg-ra). Egoera horren aurrean, programak eta nekazariak plan logistiko handi bat garatu behar izan zuten, uzta guztia (700 tona) toki gutxi batzuetan biltzeko eta, hola, artean aktibo zeuden erosle gutxi batzuk erakartzeko. Azkenik, prezioa 15 MZN/kg-tik 25 MZN/kg-ra igotzea eta kanpaina salbatzea lortu zen.

Esku hartze horrek, egoera zehatz bati emandako erantzuna izanda ere, Programaren ezaugarri nagusietako bat erakusten du, ez baita prestakuntza proiektu gisa edo labore edo teknika bat sustatzeko proiektu gisa ulertu behar. Programa, batez ere, baliabide ekonomiko urriekin bizirauten duten landa biztanleen diru sarrerak handitzeko bitarteko bat da. Izan ere, teknika edo laborantza jakin bat sustatu ondoren, programaren inpaktu adierazleak esaten du zein izan den parte hartzaileek diru sarretan izan duten hazkundea hura aplikatzeagatik. Helburu horrek marrazten du programaren norabidea.

Aldaketa: arnasa luzeko lana



Mozambikako iparraldean, biztanleen %80 urtean 300 euro baino gutxiago eskuratzen duten nekazari familiak dira. Hain orokortua dagoenez, egoera perbertsoki egonkorra da. Gutxi ekoizten dute, erosle gutxi dago, gutxi ordaintzen dute, ez du merezi teknikaren hobekuntzan inbertitzea, pobrezian jarraitzen dute...

Gurpil horretatik ateratzeko, emankortasunaren, bolumenaren eta merkaturatzearen konpasean mugitu behar da, gutxi gorabehera. Adibide interesgarri bat Majune barrutian sesamoarekin izandako esperientzia izan daiteke.

Majune, izatez, probintziaren ardatz komertzial nagusitik kanpo dagoen barruti bat da, 40.000 biztanlekoa, eta horietatik %90 nekazari familiak dira. 2011n, programaren aukeren artean sesamoa sartzea erabaki zen, Majunen ezegaduna izan arren, haren ekoizpena emaitza onak ematen ari zelako herrialdeko beste barruti batzuetan.

Urte hartan 160 familia baino ez ziren animatu, eta 11 tona uzta baino ez zituzten bildu; ahalegin handia eginez prezio baxua jarri eta erosle bat erakartzea lortu zen. Produktibitatea oso txikia izan zen (250 kg hektareako), batez ere soro askotan ez zelako uztairik atera, gutxieneko gomendioak –ereiteko egutegia, kasu– ez betetzeagatik.

Lanean jarraitu zuten, eta 2015ean 500 familia partehartzaile ziren jadanik, 150 hektarea eta 45 tonarekin. Hiru erosle zeuden eta produktibitatea hektareako 300 kg-koa zen, batez ere gehienek gutxieneko jarraibide teknikoek jarraitu zirelako.

2017an 900 familia inguru ziren, 250 hektarea eta 100 tonarekin. Uzta handiagoa lortu zutelarik, erosle gehiago erakartzen zituzten, eta prezioak igo egin ziren, hobeto komunikatutako barrutietan ordaintzen zirenak berdintzeraino igo ere. Produktibitatea 400 kg/ha ingurukoa zen, gero eta teknika hobekoak erabiltzen zituzten nekazariak zeudelako.

Gaur egun 2.000 ekoizle baino gehiago dira, eta urtean 450 tn inguru batzen dituzte. Erosle handiak erakartzen dituzte, eta prezio onean saltzen dute uzta. 14 urteko lana izan da, baina une honetan, Majune barrutiko familia guztien %25ek lantzen dute sesamoa, eta nekazaritzako diru sarrera nagusia da, alde handiz gainera, barrutian.





Kooperanteak

Mundukideko kooperanteak gure garapen-programetako ezinbesteko piezetako bat dira.

Kooperantearen ekarpena funtsezkoa da komunitatearen eta Mundukideren artean konfiantzazko harremanak sortzeko orduan. Epe luzera lankidetzaz eraginkorra izateko ezinbestekoak diren harremanak. Eta hori lortzea ezinezkoa izango litzateke korreo elektronikoz edo noizbehinkako bisiten bidez.

Lankidea tokiko testuinguruan txertatzea funtsezkoa da Mundukidek beharrak, gaitasunak, oztupoak edo aukerak hobeto ulertu ahal izateko eta, hortik, egokiak eta bideragarriak diren proposamenekin lagundu ahal izateko.

Aldi berean, lankidearen eguneroko presentzia eta parte-hartzeak ere balio esanguratsua ematen dio komunitateari, esperientzia, ezagutza, trebetasun eta ikuspegi desberdinak bateratzea funtsezko elementuetako bat baita aldaketa-prozesu batean.

Hain bizi-esperientzia desberdinak dituzten kolektibitateen arteko lankidetzaz eraginkorra ahalbidetzen duen funtsezko pieza da kooperantea. Pertsonen gaitasun hain ezberdinen konbinazioan bilatzen dugu aldaketaren giltza.



Brasil



Julio Martínez Arija
(Minas Gerais)



Natxo de Vicente
(Rio Grande do Sul)



Itziar Aranburu Agirre
(Ceará)



Xabier Etxebarria Unzurrunzaga
(Ceará)

Kolonbia



Asier Elorza Ugarte
(Nariño y Cauca)



Iker Cabrejas De la Torre
(Nariño)



Ekuador Mozambique



**Yon
Arruti
Chasco**
(Ibarra)



**Elena
Ramos
de la Cruz**
(Niassa)



**Javier
Mendoza
Cuartero**
(Niassa)



**Lidia
Moreno
Jorge**
(Niassa)



**Maria
Olivera
Martín**
(Cabo Delgado)



**Fabrizio
Graglia**
(Oromia)

Etiopia

Kooperanteak, programa garatzen den herrialdean bizi eta lanean ari diren Mundukideko profesionalak dira.



Sentsibifiazioa



MUNDUKIDE SARIA

"Kosmopolita" izan da Huhezinema 17. edizioko film irabazlea. Unax Alcuillak zuzendutako film laburrak Ibarrekolanda BHIren eraldaketaren gaiari heldu dio. Institutua egoera kritikoko zegean 2007an, ikasleen galera zela-eta desagertzeko puntuan. Urte pare bat geroago, arte plastiko eta eszenikoen batxilergoa ezarri izanak inflexio puntu bat markatu zuten. 2022an, Eusko Jaurlaritzak beste plan batzuk zituen erakundearentzat, hausnarketa bat planteatu.



KONTZERTU SOLIDARIOA

Korrontziren folk doinuek, Debagoieneko Lagun Artean, Lore Gazteak, Txikitxu Arrostitz eta Jaiki Dantza Taldearen luxuzko kolaborazioekin batera, TTakun txalapartariak eta Arrasateko trikitixa taldeak bete egin zuten Arrasateko Monterron anfiteatroa. 800 lagun baino gehiagok dantzatu zuten trikitixaren doinuekin, Debagoieneko bizilagunek Mozambiketik lankidetzan programarekin daukaten konpromisoa indartzea helburu.



BADA BESTE MUNDU BAT

23 eta 29 urte bitarteko 10 gazte bisitatu dute Ekuador, LABORAL Kutxaren ekimenari eta Mundukideren laguntzari esker. Ekuador dorko bi errealitate ezagutu dituzte, Andeetako eta Amazoniako, erazketa jardueren mehatxuen aurrean beren lurraldea eta bizimodua defendatzeko alternatibak bilatzen dituzten biztanleen ikuspegitik. 1.400 hautagaietatik 200 aukeratu ziren zozketa bidez, 30 azken hautaketara pasatu ziren elkarrizketa bidez 10 aukeratu.



MUNDUKIDEREN VIII. LASTERKETA SOLIDARIOA

Urriaren 22an ospatu zen Aretxabaletako Urkulu urtegiaren Mundukideren Lasterketa Solidarioaren 8. edizioa, kirol modalitate ezberdinetan 304 pertsonako partaidetzaz. x3 lasterketan kooperatiba ezberdinetako 43 taldek parte hartu zuten eta beste 99 pertsonak oinez gozatu zuten urtegiari bira emanez. Gainera, 75 gazte lehiatu ziren gazte kategorietan. Antolakuntzari dagokionez, Mundukidek Fagor Electronica, Krean eta Athlon kooperatiben laguntza izan zuen, baita hainbat kolaboratzaile ere; horien artean: LABORAL Kutxa, Arteaga, Orbea, Columbus, 1990 Gastroteka, Eroski, WCloc, Arrasate Athletiko Taldea, Aretxabaletako Udala, Ausolan, Konfekoop, Aretxabaletako UDA eta Paellagileak.



Gizarte Eraldaketarako
Hezkuntza Interkooperatiboa

GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

2017 urteaz gero egindako lanaren ebaluaketa egin da 2023an eta harren ondotik hezkuntza prozesuak indartzea erabaki da. Mundu konplexu honen ulermenear sakontzeko metodologiak lantzea eta Euro-parrok, munduko aberatsok, munduan dugun lekua eta erantzukizunak aztertzea. Adibide gisara, Mon-dragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoarekin hautazko ikasgai bat ipini da martxan. Ikasgaiaren helburua aurreiritzirik gabe munduaren egoera era metodikoan aztertzea izan da. Horretarako Estatistika erakundeen datuak baliatu dira nagusiki. Datuekin lan egiteko teknikak landu dira eta aztertutako gaiak askotarikoak izan dira. Besteak beste: ekonomia, emakume eta gizon arteko desberdintasunak, elikadura, CO2 isuriak, migrazioa, bortxa, osasuna edo eta hezkuntza.

JASANGARRITASUNAREKIKO KONPROMISOA

Mundukiden ingurumenarekin dugun konpromisoa zeharkako ardatz gisa hartzen da gainerako arlo guztietan egiten dugun lanean.



KARBONO AZTARNA

Gure jarduerak programa desberdinetan sortzen dituen berotegi efektuko gas isurketen neurketa egin dugu berriz ere, 1., 2. eta 3. irismenatarako. Horri esker, gure jardueraren ingurumen inpaktua eta programa bakoitzaren inpaktu ekonomiko eta soziala zein diren jakin dezakegu.

OPTIMIZAZIO ENERGETIKOA

Mundukidek Arrasaten duen egoitzan, energia kontsumoa murriztea eragin duten neurriak hartu dira, eta garraio-bide publikoen aldeko apustua egiten eta bizikleta bezalako garraio jasangarrien erabilera zabaltzen jarraitzen dugu. Era berean, telelana eta talde birtualen lana sustatzen dugu, kostuak eta emisioak murriztea helburu.

KARBONO KONPENSASIOA



Klima aldaketarekin, karbonoaren borondatezko konpentsazioaren ekintzen garrantzia gero eta nabarmenagoa da. Horregatik lehen azterketa bat egin nahi izan dugu Mundukideren programetan izan dezaketan inpaktu ekonomiko, ingurumenekoa eta soziala ezagutzeko.



Datu ekonomikoak



DIRU SARRERAK	2.907.283 €	% 100
KOOPERATIBAK	953.920 €	% 33
ERAKUNDE PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK	1.563.126 €	% 54
GGKEak	57.105 €	% 2
PARTIKULARRAK	94.376 €	% 3
BESTELAKOAK	238.756 €	% 8
GASTUAK	-2.907.283 €	%100
INTERKOOPERAZIO GASTUAK	-2.581.695 €	% 89
INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE	-714.138 €	% 25
INTERKOOPERAZIOA BRASIL	-816.810 €	% 28
INTERKOOPERAZIOA KOLONBIA	-499.582 €	% 17
INTERKOOPERAZIOA EKUADOR	-232.899 €	% 8
INTERKOOPERAZIOA ETIOPIA	-180.540 €	% 6
GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA	-23.867 €	% 1
INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA	-55.039 €	% 2
INTERKOOPERAZIO OROKORRA	-25.530 €	% 1
HITZARTUTAKO PROGRAMAK	-33.291 €	% 1
GASTU OROKORRAK	-325.588 €	% 11
FONDO BILKETA	-55.671 €	% 2
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	-92.201 €	% 3
KUDEAKETA	-177.717 €	% 6
EMAITZA	0 €	



NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN XEDEA

- INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE
- INTERKOOPERAZIOA BRASIL
- INTERKOOPERAZIOA KOLONBIA
- INTERKOOPERAZIOA EKUADOR
- INTERKOOPERAZIOA ETIOPIA
- GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA
- INGURUMEN-JASANGARRITASUN
- INTERKOOPERAZIO OROKORRA

GASTUAK ATALKA

- NAZIOARTEKO LANKIDETZA
- SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
- FONDO BILKETA
- KUDEAKETA

Kontuak LKS Auditoresek auditatutakoak dira eta auditoriaren txostena <https://mundukide.org/eu/nor-gara/gardentasuna/> helbidean dago ikusgai, urteko kontuekin batera.